

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

799

EBAZPENA, 2026ko urtarrilaren 28koa, Hizkuntza Politikako sailburuordearena, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko azaroaren 11ko Aginduan aurreikusitako dirulaguntzak esleitzen dituen (Argitalpenak deialdia).

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko azaroaren 11ko Aginduari jarraikiz (EHAA, 2025eko azaroaren 18koa, 222. zk.), zeina euskara hutseko argitalpenak sendotu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko baita (Argitalpenak deialdia), eta Balorazio-batzordeak egindako proposamena ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Goian adierazitako aginduan ezarritako baldintzak bete dituzten egitasmoak diruz laguntzea (eranskina).

2. artikulua.— Interesatuei ebazpen hau jakinaraztea.

3. artikulua.— Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, herritar orok horren berri izan dezan eta ebazpenak jakinarazpen ondorioak izan ditzan. Hala ere, argitalpena ez da oztopo izango beste mota bateko jakinarazpena egiteko. Interesdunari bide batetik baino gehiagotatik egiten bazaio jakinarazpena, lehengoaren data hartuko da jakinarazpen-datatzat, 39/2015 Legearen 41.7 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4. artikulua.— Laguntza-eskatzaileraren bat ebazpenarekin ados ez badago, gora jotzeko errekursoa aurkeztu ahal izango dio Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 28a.

Hizkuntza Politikako sailburuordea,
AITOR ALDASORO ITURBE.

ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO EGITASMOAK

Eskatzailea	Egitasmoa	Espedientea	Dirulaguntza	Ordainketak	
				2025 (% 55)	2026 (% 45)
Alai Argitaletxea SL	Golazen aldizkaria	006-EAR-2025	29.576,00	16.266,80	13.309,20
Asociación para la defensa de las especies en vías de extinción	Euskal Herriko Natura	001-EAR-2025	17.079,00	9.393,45	7.685,55
Asociación Real Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais Euskalerriaren Adiskideen Elkarte	Egan	003-EAR-2025	8.538,00	4.695,90	3.842,10
Carmelitas Descalzos-Prov Navarra-Convento de Ntra. Stma. Madre del Carmen de Marquina	Karmel	010-EAR-2025	15.000,00	8.250,00	6.750,00
Euskal Herriko Ikastolak Sdad Coop Europea	Xabiroi komikia	005-EAR-2025	57.350,00	31.542,50	25.807,50
Fundación Orienta Zaitz Fundazioa	Eworl aldizkaria - Digital Generation	002-EAR-2025	51.395,00	28.267,25	23.127,75
Harriet Ediciones SL	Manga Euskaraz	007-EAR-2025	20.636,00	11.349,80	9.286,20
Irrien Lagunak SL	Irria aldizkaria	009-EAR-2025	70.819,00	38.950,45	31.868,55
Jaime Zarandona Mezo	Bagabiz aldizkaria	008-EAR-2025	32.071,00	17.639,05	14.431,95
Soziolinguistika Klusterra Soziolinguistika Ezagutza Garatzeko Klusterra Elkarte	Bat Soziolinguistika Aldizkaria	004-EAR-2025	31.000,00	17.050,00	13.950,00
Tekum Fundazioa	Ekai Center	011-EAR-2025	28.782,00	15.830,10	12.951,90
		Guztira:	362.246,00	199.235,30	163.010,70